



2020 Urte Berr! On!

2019ko URTEKARIA barruan



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia
Begi lehorraren tratamendua



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844 • www.clinicarecalde.com

CRF AMOSTEGI

ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTRUA

* **ERREHABILITAZIOA**
- Pribatua - Aseguruak

* **FISIOTERAPIA PERTSONALIZATUA**

Esku terapia - Osteopatia / INDIBAterapia (Radiofrekuentzia) /
Txizaren inkontinentzia (emakumeak eta gizonak)

E.P.I.: Azal-elektrolisi intratisularra / K-LASERterapia / Puntzio lehorra

* **HAURDUNEN OSASUNARENTZAT
ETA ERDIONDORAKO DENETARIK**

- Amatasunerako prestakuntza:

Haptonomia eta Metodo tradizionala (taldeka/banakakoa)

- Episiotomiaren prebentzioa, Txiza-inkontinentzia, Prolapsoak: EPI-NO + Masajea

- Lunbalgien, Sakroilialgien, Coxigodini... esku-tratamendua

- Pelvis-zoruaren balorazioa erdiondoan

- Tratamenduak txizaren inkontinentzia eta/edo inkontinentzia fekalerako, zesareen
orbaintzat, episiotomiak, perineoko mina, etb.


- Antzutasun funtzionalaren tratamendua

* **MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

- Zelulitisaren tratamendua kabitazio ultrasonikoaren eta elektrolipolisisaren bitartez

- Eskuzko drainatze linfatikoa (DLM) eta/edo presoterapia

- Elektrodrainatze linfatikoa eta baskularra (zainetako itzuleraren areagotzea)



Muzategi, 2 behea Tfnoa/Fax. 943 20 34 46 info@crf-amostegi.com www.crf-amostegi.com

ESTREINA EZAZU IRRIBARREA!

PROMOZIO BERRIA TITANIOZKO INPLANTEETAN
ETA %15-eko DESKONTUA PROTESIETAN





Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Mainer Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOAK: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Periko Iriondo

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.200 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta intzieren erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTZA)**

Eskutitzak

Urkikoen zozketa-zenbakiak

Urki taldekoen rifen zozketan, hauek izan dira saridunak: lehen saria, Gabonetako-lotea 1222 zenbakiari egokitu zaio (erreserba 0288) eta bigarrena, Andia harategiko urdaiazpikoa, 1799 zenbakiari (erreserba 1202).

Urki Futbol Taldea



Datorren astean
"Eibarko kaleak eta iturriak"
+ 2020ko GIDA
jasoko duzue zuen buzoietan

Hurrengo alea
urtarrilaren 10ean

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MORMOZKO / MURMURREKO / MORMORREKO ENTIARRUA.- Kanturik gabeko hiletaldirik ez. Aste santuan denak ziren horrelakoak, sasoi horretan ezin zelako elizan kantatu. "Mormozko entierroagaz juan zan lurpera, Barixaku Santua zalako". Ahalmen ekonomiko urria zeukatenei egiten zitzairen entierua ere esan nahi du. "Aberatsa zalakuan, eta mormorreko entierroagaz juan zan Urkiko esparrura".

astean esanak

"Euskal Herriko musika arloan XX. mendeko erreferentzia abangoardista Aita Donostia da. Garai hartan, punta-puntako musika elektronikoa Aita Donostia fraiderena zen: *Cancionero Vasco*, 2.000 kantu, baserriz baserri. Punta-puntako erreferentzia zen Kataluniako Ventallon egindako abangoardiako musiken nazioarteko jaialdian, ni neu izan nintzen. Zer jotzen? Txalaparta, txistua, Arizkungo sagar-dantza... eta jendea zutik! Beraz, hori da: tradizioa eta abangoardia gertu gertu daude, argi dago"

(JUAN MARI BELTRAN, MUSIKARIA)

"2007tik 2018ra arte Euskadin gazte batek hilero jasotzen duen soldata garbia 1.286 eurotik 1.336 eurora igo da, 11 urtetan pilotutako %4tik behera. Denbora berean merkatuko etxebizitza librea (berria edo erabilia) %26 jaitsi da eta eta babestua %42an igo da, librea baino %25 garestiagoa izaten jarraitzen badu ere. Gazteek, edo euren soldata bikoizten dute, edo pisua biren artean hartu behar dute, ez dago besterik. Ez dago aukera askorik oraingo egoera aldatzeko epe laburrean. Frantzia ez da halakorik gertatzen; eta Suedian gazteek 19 urterekin irititzen dute etxetik. Badugu bidea aurretik"

(ANGEL TOÑA, EKONOMILARIA)

"Hamarkada bat darama Beldur Barik programak martxan, gazteekin lanean. Neskak ahalduz eta -batez ere, baina ez soilik, mutilen- jokabide matxistak ahultzea helburu. Eta izan da aldaketarik, ari da bide bat urratzen, batez ere mugimendu feministak izandako bilakaerari eta indarraldiari esker. Baina, egindakoa ez da nahikoa, ezta hurrik eman ere. Iaz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 15 eta 29 urte arteko 1.278 emakumek jarri zituzten salaketak genero indarkeriagatik; egunean hiru salaketa baino gehiago izan zirela esan nahi du horrek. Datuei erreparatuta, badugu lan nahikoa"

(EIDER GOENAGA, ZUTABEGILEA)

“Kaskarot” euskerazko antzezlan

Urtarrilaren 2an, 17:00etan, “Kaskarot” familia osoarentzat moduko antzezlan aurkeztuko du ATX Teatroak, euskeraz, Coliseo antzokian. Lan horretan agure batek istorio bat kontatuko du: Aner dantza egitea debekatuta dagoen gizarte distopikoan bizi da. Anerri, aldiz, atsegin zaio dantza egitea, eta horrek arazoak sortuko dizkio. Kaskarot Anerren “alter egoa” da. Bere grazia eta gatzarekin, Anerri lagunduko dio egoerari buelta ematen eta haren adierazpen askatasuna ezarritako arauen aurretik jartzen.

Florentino Badiolak zuzenduta, Maryse Urruty, Nacho Montero, Jon Koldo Vazquez eta Gartxot Unsain Letona antzezleek egiten dute lan antzezikizunean. ATX Teatra 2010ean sortu zen Bilbon, Iñaki Ziarrustaren eskutik. Ikuskizunei dagokienez, euskal tradizioan eta antropologian ikertzea da konpainiaren ibilerako ardatz nagusienetakoa. Sarrerak 5 euro balio du.



Asfalto taldearen kontzertua gaur

Gaur 22:00etan emango du kontzertua Asfalto taldeak, Coliseo antzokian. 47 urteko ibilbidea egin eta gero, eszenatoki batetik bestera zuzenekoak eskaintzen jarraitzen du talde madrildarrak. Taldea sortu zenetik gaur egun arte bertan dagoen Julio Castejonekin batera Arturo Garcia, Paul Castejon, Nacho de Lucas eta Pablo Ruiz egongo dira. Sarrerak 23 euro balio du (16 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Beñat Sarasolarekin hasiko du urtea Harixa Emotenek

Urtarrilaren 7an, 19:00etan hasiko da Idazlearen Harixa Emoten euskerazko irakurketa klubaren urteko lehen saioa, Portalean, 1. batzartokian: Beñat Sarasolak "Deklaratzeorik ez" irakurri duten irakurleei haren gaineko ideiak, esperientziak eta bizipenak elkartrukatzeko aukera eskainiko die, aurrez aurreko solasaldian. Saioa dinamizatzeko Antxon Narbaizaren laguntza izango dute.



Sari bi Ordizian Mugika harategiarentzat

Mugika harategiko Aitor Oregi Gisapolak sari bi jaso ditu Ordizian, hango Udalak, Gipuzkoako Harakin eta Txerriki-egile Elkartek eta Gipuzkoako Merkatarien Federazioak antolatutako lehiaketetan: XXII. Euskal Herriko Txistorra Lehiaketan bigarren saria eraman zuen eibartarrak eta XXI. Gipuzkoako Odo-



loste Lehiaketan, berriz, bosgarren saria. Mugika harategia Eibar Merkataritza Gune Irekiaren, Eibar-ko Dendari Elkartearen eta Gipuzkoako Merkatarien Federazioaren kide da eta hiru elkarteetako ordezkariak zorionak eman dizkiote harakin eibartarrari, lortutako sari bi horientzat.

Jostailuak erosteko 600 euro bildu dituzte

600 euro lortu dituzte La Salle ikastetxeak, Eibar-Ermuko Gurutze Gorriekin batera egin duten Gabonetako kanpainan, beharra duten haurrei jostailu berriak erosteko. Ikastetxeak arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete Tandanacui taldekoei, “egunero jolasorduetan elkartasun txoko-bizkotxoak prestatzen aritu direlako”, baita elkartasun kanpaina horretan parte hartu duten beste guztiei ere.





Olentzero joan zaigu

Aurten ere Olentzero bisitan etorri zitzaigun abenduaren 24an. Goizean Urkizutik Untzagara bitartean kantu-kalejiran ibili eta gero, euren gutuna eskura eman nahi izan zioten umeekin egon zen udaletxeko patioan eta gauean, berriz, gogotik jardun zuen behar-rean, etxe guztietan eskatutako opariak lagatzeko.

Hiru erregeen kabalgata

Urtarrilaren 5ean egingo da Hiru Erregeen Kabalgata, Eibarko Musika Bandak lagunduta. Herriko kaleak zeharkatuko dituen kalejira 19:00etan hasiko da, Untzagan, baina aurretik, urtero bezala, dantza-erakustaldia egingo dute Ipurua Dantza Garaikideak, Eibarko Balletak eta Ipurua Gimnasia Erritmika taldeak Ipurua kiroldegian, 17:00etan hasita.



Banatu dituzte Dendari Elkartearen 60 otarrak

Barixakuan banatu zituzten Eibarko Dendarien Elkartearen Gabonetako otarrak elkartearen bulegoan. Guztira 60 otar eder oparitu zituzten, azaroaren 25etik abenduaren 17ra bitartean erosketak elkartearen txartelarekin ordaindu zuten bezeroen artean zozketa egin eta gero. Gabonetako kanpainaren baitan, otarrez gain 40 euroko balioa duten 75 erosketa-txartel ere banatu dituzte. Zorionak saridun guztiei!



Jaso dute Peña Txinberako otarra

Peña Txinberako otarra banatu dute. Zozketan 0251 zenbakiari egokitu zitzaion saria eta, argazkian ikusten den moduan, Naiara Murielek eraman du Gabonetako otarra. Zorionak!

Urte berriari ongietorria Urko puntan

Klub Deportiko Mendi Taldekoek Urko puntara igota hasiko dute 2020. urtea, eurekin bat egitera animatzen diren guztiekin batera: urtarrilaren 1ean, 09:00etan Depor parean elkartuko dira, handik abiatuta Urkora igotzeko. Urteroko martxan, 10:30ak aldera talde-argazkia egingo dute.

Benicobako otarra Aitor Ortizentzat

Benicoba dendakoek zozketatu duten otarraren irabazlea Aitor Ortiz izan da. Zorionak!



00358 zenbakiak eramango du Eibar BHI-ko otarra

Eibar BHI-ko ikasleek ikas-bidairako dirua lortzeko saldutako rifen zozketan, sariduna 00358 zenbakia izan da. Irabazleak urtarrilaren 14ra arteko epea izango du ikastetxera joan eta otarra jasotzeko (egun hori barne). Bestela, egun horretatik aurrera 05748 ordezko zenbakiak eramango du saria (urtarrilaren 21era arte izango du otarra ikastetxean jasotzeko aukera).





urtarrila



IRATI JIMENEZ **energia aholkularia** **Munduko Bankuan:**

“Munduko Bankuak diru mordo mugitzen du. Bere aurrekontua herrialde garatuetatik dator, baina ez da nahikoa proiektuak finantzatzeko”



MARTIN **AZPILIKUETA** **ilustratzailea:**

“Komiki bat egiteko ez da beharrezkoa ondo marraztea, marrazten ondo pasatzea eta gozatzea da beharrezkoa”

Urtea triste hasi genuen, **Miguel Gallastegi** pilotari handiak utzi gintuelako hilaren 4an. Eta kirolekin jarraituz, **Markel Gutierrezek** Euskadiko txapela irabazi zuen 20 kilometro martxan.

Eibarko Udalak 2025. urtera arteko Ingurumen **Ekintza Plana** zehaztu zuen eta Arrate Kultur Elkartek **‘Basogintzaren kudeaketarako proposamena naturatik hurbil’** izeneko erakusketa jarriko zuen martxan Topalekuan ‘Kolare guztietako basoak’ elkartearen eskutik. Eibarko Armagintzaren Museoan, bestetik, **‘Pirinioetako Burdinaren Bideko ondare industrial’** izenburuko erakusketa zabaldu zuten, burdinarekin eta siderurgiarekin erlazionatutako ondare industrialaren inguruko informazio ugari bilduz.

Herriko kaleetan minigarbiguneak jarri ziren gaikako bilketa errazteko. Armeria Eskolak ‘Ondo egindako lana’ saria eskaini zion **Elkar Fundazioari**, euskeraren eta euskal kulturaren garapena kultur industriaren egituratzetik bideratzeagatik.

Osasunari begira, bi kontu. Batetik, **Egogain gerontologikoko langileak**, bi urtez eskaerak egiten ibili ondoren, planto egin eta kalera irten ziren lan-baldintza duinak lortzeko asmoz. Eta bestetik, **Eibarko Ospitalearen aldeko plataformak** ‘Txopitea eta Pakea’ saria lortu zuen.

Arlo kulturean, **Jose Miguel Laskurain** orkestra zuzendaria Bielorrusian egon zen hango Irrati eta Telebistako Orkestra zuzentzeko eta sari bat jaso zuen. Eta **Juan Antonio Palacios** argazkilariak ‘Harria’ argazki-bilduma argitaratu zuen, harri-jasotzaileei buruzko lana.



Egogain gerontologikoko langileek planto egin eta kalera irten ziren lan-baldintza duinak eskatzeko. Borrokan jarraitu dute urte osoan zehar.

2.922 kontsulta jaso zituen iaz Udal Artxiboak, aurreko urtean baino %15 gehiago.

759 odol donazio egin ziren iaz horretarako antolatutako 22 saioetan, hau da, 34 lagun batatzbesteko.

113.000 erabiltzaile inguru izan zituen Liburutegiak iaz, aurreko urtean baino %3,36 gehiago.



Herriko ingurumena ardatz, Udalak Ekintza Plana zehaztu zuen eta Arrate Kultur Elkarteak basogintzaren kudeaketarako proposamen bat aurkeztu zuen.



JOSE IGNACIO FRONTAURA
Eibarko Pentsiodunen ordezkarria:

“Eibarko pentsiodun eta jubilatuek gure borrokarekin jarraituko dugu, askoz ere garrantzitsuagoak diren hobekuntzak lortu arte”



Urtarrilaren 4an Migel Gallastegi pilotari handia joan zitzaigun, 100 urterekin.



RAFAEL ZUBIZARRETA
Beheko Tokiko jubilatua:

“Bertsoak, ona izateko, pikardia puntua behar du. Bestalde, gaur egun joera bestelakoa bada ere, bertso luzeen zalea ez naiz ni”.

 **Larragest**



F. Calbeton, 22-24

INMOBILIARIA
690 610 715

ASEGURUAK
943 200 795



otsaila



MIKEL LIZARRALDE

“Esklerosi anizkoitzari buruzko jakintza zabaldu nahiko nuke eta gazte bati gaixotasun hau diagnostikatzen badiote, ez dezala beldurrik izan”



BIXENTE MARTINEZ musikaria:

“Musikak adierazten dituen sentimenduak ezin dira berbeekin azaldu. Bihotzari eta sentimenduei ateratzen laga behar diezu zuzenekoetan”

Otsailean, urtero egin ohi den bezala, **42. Antzerki Jardunaldiak** egin ziren apirilera arte. Aurtengo edizioan Concha Velasco egon zen hasierako ekitaldian. Hilaren 3an, eibartarrek **San Blas** opilak bedeinkatu zituzten. Eta 4an, **Santa Ageda** bezperan, herritarrek santaeskean ibili ziren. Herriko hainbat eragilek **Euskal Herrian Bizi** ekimena antolatu zuten, eragile ezberdinen arteko topagune eta indarrak batzeko egun gisa.

Eibarko Udaltzakoak 39 milioi euroko **Udal Aurrekontua** onartu zuen. **Udaltzaingoak** transizio aroa hasi zuen eta aurpegi berriak sartu ziren herriko segurtasun-zerbitzuan.

Hezkuntza arloan, **VIII. Ikasenpresa Azokak** EAEko Lanbide Heziketako 2.000 ikasle eta 380 proiektu inguru jaso zituen. **Eskola jangeletako langileek** greba egin zuten hilaren 26an, Hezkuntza Sailaren menpeko sukalde-langileen baldintzekin homologazioa lortzea aldarrikatuz. Eta Uni Eibar-Ermua BHIk **UniEncounter** jaso zuen, 28 orduz jarraian informatika mintzagai izan zuen topaketa.

Kiroletan, **Pello eta Txomin Osorok** urrezko eta brontzezko dominak lortu zituzten, hurrenez hurren, neguko triatloiko Espainiako Txapelketan. **Urbat** Waterpolo Taldeko gizonetakoek Euskadiko Kopa irabazi zuten Askartza Claretan aurka. **Emakumezkoen errugbi taldea** Ohorezko B mailara igo zen partidu guztiak irabazita. Gero, denboraldi berean, Ohorezko A Mailara igotzeko aukera izan zuen, baina ezin izan zuen lortu.

Maila kulturean, **Castor Garatek** ‘Lexicón del castellano eibarres’ kaleratu zuen, Eibarren eta inguruan erabiltzen diren “erderazko” 330 berba batzen dituen liburua. Hilaren 20an **Bernardo Atxaga** idazleak irakurraldi dramatizatua eskaini zuen liburutegian Euskaltzaindiaren mendeurrena ospatzeko. “Euskera batuaren erabakia funtsezkoa izan zen, hil ala bizikoa”, esan zigun egin genion elkarrizketan. ‘Norte Frio Click Mixtape’ izenburua du Eibarren egin den lehen rap diskoak. Pit, B. Boy eta **Ibai Elkoro** dira lanaren sortzaileak.

Errebal Plataformak urte askotan **Errebal hankaz** gora eduki dute obren inguruan garrantzutasuna eskatzeko **martxan jarri zen** (!?). Eta hankaz gora geratu zena **Arane kalea** izan zen, euriaren eraginez gertatutako luperiaren ondorioz.

Hileko azken asteburuan Kezkakoek **koko-dantzak** egin zituzten herriko baserrietan, eta herriak mozorrotuta agurtu zuen hilabetea.



EAEko Lanbide Heziketako ikasleen proiektuak hartu zituen VIII. Ikasenpresa Azokak, arlo honetan erreferente bihurtu den egitasmoa.

376 proiektu eta 2.000 ikaslek hartu zuten parte Ikasenpresa Azokaren aurtengo edizioan.

678 Gizarte Larrialdiko Laguntza eskaerari erantzun zion Eibarko Udalak iaz eta 488.277 euro erabili ziren horretarako.

27.600 biztanle ditu gaur egun Eibarrek urte hasieran emandako datuen arabera; azken 10 urteetako kopuruari eusten dio.



Concha Velasco aktoreak eman zion hasiera 42. Antzerki Jardunaldiari. Urtero bezala, maila handiko antzerki-lanak eskaini ziren herrian.



FELIX MORQUECHO
kazetari eta
argazkilaria:

“Zaila egiten zait nire burua San Andres egun batean argazkiak egiten ibili barik irudikatzea”



Eibar Rugby Taldeko emakumezkoen taldeak historia egin eta Ohorezko B Mailara igotzea lortu zuen.



IÑAKI IRIONDO
Garako kazetaria:

“Garak aurrera egin nahi du, baina zorra kitatu behar dugu eta ez da erraza izango”



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Bidebarrieta 20

Tlfno: **943 20 16 69**

 facebook.com/oberenaharategia





martxoa



MAIALEN GISASOLA Ekinguneko presidentea:

“Debabarreneko ekintzaile guztiei aukerak eman nahi dizkiegu”

“Gero eta bazkide gehiago dago elkarteetan, aurpegi berri asko eta jende gaztea sartu da”



ELISA SAINZ DE MURIETA, klima-aldaketan aditua:

“Sasoiz gabiltza klima-aldaketaren eragin larriagoak ekiditeko”

“Klima-aldaketa lehentasunezko gaia da. Ez da izotz-geruza handien urtzea bakarrik. Gure herrietan eragiten du”

Martxoa koko-jantzi jaiarekin hasi genuen eta hilabetea morez jantzi zen. **Hilaren 8an emakumeek planto egin zuten.** Euskal Herriko Mugimendu Feministak Martxoaren 8rako egindako greba-deialdiak jarraipen masiboa izan zuten.

Azitain eta Maltzaga arteko bidegorriaren obra aurkeztu zuten, Eibar eta Elgoibar batuko dituen bidegorria. Gazte zein nagusiek erabili ahal izango dute bidegorria, baina bitartean, **Nagusien Hamabostaldia**k aisialdiaz gozatzeko gonbidatu zituen jubilatutako guztiak, eta Ikasten elkarteok San Andres eliza barrutik ezagutzeko bisita gidatua antolatu zuten.

Udaberriaren atarian **Lore, Landare eta Zuhaitz Azoka** egin zen Urkizun. Eta inguru-mena zaintzarekin kontzientziatzeko, hilaren 30ean **Planetaren Ordua** ospatu zen eta antolatzaileek erronka bat proposatu zuten: ordubetez argiak itzaltzea.

Pasaian 2013. urtean trafiko liskar modura hasi zen arazoaren ondorioz bi urte eta erdiko kartzela zigorra eta inhabilitazioa ekarri zion 2017ak **Iker Rokandio** eibartarrari, eta aurtengo martxoaren 10ean baldintzapeko askatasuna eman zituen. Bestetik, **Agustin Ochotoren**ak Venezuelari buruzko hitzaldia eskaini zuen Arrate Kultur Elkartearen eta Venezuelako gobernuaren aurkako jendearen erasoak jasotzen.

Eusko Jaurlaritzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Hekimen elkarteak **euskarazko komunikabideak babesteko** diru laguntzen eredu berria adostu zuten.

‘...eta kitto!’ Euskara Elkarteak antolatuta **IX. Euskararen Transmisioari buruzko Mintegia** egin zen Portalean. Euskarari buruzko hainbat datu, egitasmo eta gogoeta partekatu ziren hizlarien eta entzuzera joan zirenen artean. Ametsak eta Bacoleku Urkizuk irabazi zuten **Gilda Lehiaketa**.

Eibarko Unibertsitateko Ikasle Mugimenduak **Herri Unibertsitatea** antolatu zuen, gaur egungo unibertsitate ereduaren inguruan eztabaidatzeko.

Apirileko txirindularitza menuaren aurretik, martxoan **II. Eibar Hiria Sari Nagusia** ospatu zen eta maila handiko 199 txirindulari jaso zituen proba nagusian. Lorena Llamas izan zen garailea.



Martxoaren 8an herria morez jantzi zen. Emakumeek planto egin zuten, euren eskubideen aldeko borroka ezberdinak gogoratzeko eta eskubide horiek betetzea eskatzeko.

300.000 euroko diru-laguntza eman dio Eusko Jaurlaritzak Eibarri, herrian irisgarritasuna hobetzeko.

2.125 kontsulta atenditu zituzten iaz Kontsumitzaileen Informaziorako Udala Bulegoan.

17 enpresa berri, 61 lanposturekin sortzen lagundu zuten iaz Debegesan.



Herriko taberna askok gildak egiteko duten trebezia erakutsi zuten Gilda lehiaketan, baina Ametsa eta Bacoleku Urkizu izan ziren irabazleak.



**BEA SEVER, adingabe
Transexualen Familien
Elkarteko kidea:**

“Haur eta gazte transexualei bidea errazagoa egin nahi diegu”

“Orain dela oso gutxira arte adin txikikoen transexualitatea ezin zitekeen ezta pentsatu ere egin”



Ikasten elkarteak San Andres elizak gordetzen dituen sekretuak ezagutzeko bisita gidatua antolatu zuen.



**EVA PEREZ DE
ALBENIZ, Ikasten
elkartearen
Esperientzia Eskolako
koordinatzailea:**

“Nagusia izatea ez da txarra”

“Denbora librea gure ongizaterako oso parte garrantzitsua da”



**Zorionak eta Urte Berri On
eibartar
guztiei**

Tfnoa. 943 20 22 39
Mobila. 617 16 33 82
egolan.eibar@gmail.com

AHOLKULARITZA eta GESTIOA

EGOLAN

Julian Etxeberria 7, 7-C





apirila



AIALA ORONAZ ikerlaria:

“Zigor-destakamentuen gaia ezagutzera eman behar da, ez baita batere landu”

“Eibarko destakamentuan 250 preso egon ziren 1942 urtetik 1944ra”



CORAL CALVO Korrika-ko arduraduna Eibarren:

“Korrika-ko lekukoa hartzean energia berezia sentitzen da”

“Korrika Ermutik datorrenean Juan Gisasola kaletik behera joan eta Untzaga jendez beteta ikusten dudanean oilo-ipurdia jartzen zait”

Martxoko kolore moretik apirileko urdinera. **Gautena** autismoa duten senideen Gipuzkoako elkarteak Urdinduz eguna antolatu zuen herrian, Autismoaren Kontzientziaziorako Nazioarteko Egunaren harira. **Eibarko Ernaik**, bestalde, ‘Debabarrenako Bulkada Eguna’ ospatu zuen, egun osoko programazioarekin.

Apirila **Korrikaren** hilabetea izan zen. Izan ere, hilaren 14an, Itzuliko azken etaparekin batera, Korrika pasa zen herritik. Giro eguzkitsuarekin egun zoragarria bizi izan zen herrian, Korrikarekin gertatu ohi den bezala.

Txirrindularitzak ere protagonismo handia izan zuen apirilean zehar. Batetik, afizionatu mailako estatuko lasterketa garrantzitsuena jokatu zen, Valenciaga Oroitzarrea, eta datorren urtean Movistarren korrituko duen Iñigo Elosegik irabazi zuen. Eta bestetik, Euskal Herriko Itzulia Eibarko kaleetan erabaki zen eta Astana taldeko Ion Izagirrek jantzi zuen txapela Untzagan. Foballean, bestetik, **Azkena Adahik** foball-zaletuen liga irabazi zuen.

Astelena frontoian bi ekitaldi antolatu ziren. Batetik, **Zumbatoia** jaso zuen eta batutako dirua AFESD elkarteari eman zitzaion diagnostikatu bariko gaixotasunak dituzten umeen tratamenduak ordaintzeko. Eta bestetik, **tatuaje solidarioak** egin ziren pilotaren katedralean.

Solidaritategaren jarraituz, ermuarrek eta eibartarrek **1.750 kilo lenteja** batu zituzten Lesbosen (Grezia) dauden errefuxiatuei bidaltzeko.

Urtero moduan, apirilaren 14an **II Errepublika** aldarrikatu zuten. Ziur galdera hori ‘Egunean Behin’ jokoan agertzen dela. Ba Codesyntax enpresa eibartarrak apirilean sortu zuen **‘Egunean Behin’** izeneko jokoa, urtean zehar arrakasta izugarria lortu duen “euskarazko tribiala”.

Aktualitateari lotuta, Aixola urtegian **zebra-muskuiluak** aurkitu zituzten.

Udaltzaingoak **‘Shok’, ‘Aski’ eta ‘Rosk’ grafitigileak** identifikatu zituen, baina urte osoan zehar txakurra eta katua bezala ibili dira.

Hilabete amaieran Espainiako Gorteetarako **hauteskundeak** egin ziren (ez zen urteko bararra izango) eta PSE-EE eta EAJ-PNV izan ziren nagusi Eibarren.



Astana taldeko Ion Izagirre ormaiztegiarrek irabazi zuen Eibarren erabaki zen Itzulia.

%37 dira Debabarrenean berrikuntzaren alde egiten duten enpresak, Eustatek kaleratu dituen datuen arabera. Debagoiena da ehuneko altuena duen eskualdea EAEn, %46arekin.

5.759 lagun joan dira antzerkira Jardunaldietan. Sarrerren %27 Coliseoaren Lagunak txartelaren deskontuarekin saldu dira. Internet bidez %51,48 saldu dituzte eta besteak takilan.



Milaka pertonek egin zuten bat Korrikarekin Eibarko kaleetan, giro eguzkitsua lagun.



JABIER MUGURUZA
musikaria:

“Beste testura batzuei leihoa zabaltzeak azken emaitza aberastu du”

“Une jakin batean sentitu nuen behar nuela aurreko soinutik pixka bat alden du eta beste zerbait bilatzea”



Gautena elkarteak Urdinduz eguna antolatu zuen eta herria urdinez jantzi zuen Untzagan bildu zen jendetzak.



IVAN ARAKISTAIN
datuen analisian
aditua:

“Eibar KE lehen mailan dagoela aprobetxatzen da, baina gehiago egin daiteke”

“Hiriaren ekonomiarentzat oso positiboa da foball taldea lehen mailan egotea”

dica® **eibar**


URRATEGI INTERIORISMO

www.urrategiinteriorismo.com

Arragueta 27
Telf: 943 857 244

s
u
k
a
l
d
e
a
k

d
i
s
e
i
n
u
a





maiatza



JOSE IGNACIO DE CASTRO, argazkilaria:

“Argazkiak gehiago disfrutatzen dira tamaina handian”

“Deporreko argazkilariek oso maila handia dute, euren jakinduriatik ongi ikasten dut”



MARIBEL GURRUTXAGA:

“Saharako errefuxiatu askok hemendik bidaltzen dugun laguntzari esker jaten dute”

“Errefuxiatuen esparruan bizitza zaila badute ere, ez dira kexatzen”

Maiatzean jaien sasoia hasi zen eta **Santa Kurutzeko jaiak**, **San Isidro Eguna**, **Dia das Letras Galegas** eta **Euskal Jaia** ospatu ziren. Udaberria **Errenta Aitorpena** egiteko sasoia ere bada, baina horrek ez du hainbeste jai giro sortzen. Hala ere, euskeraren erabilera sustatzeko asmoz, Udaleko Euskera Batzordeak **‘Eibarren 1.500 baietz!’** kanpaina jarri zuen martxan, herrian 1.500 lagunek, gutxienez, Errenta Aitorpena euskeraz egin zezaten.

Jaiez gozatu eta Errenta Aitorpena egiteaz gain, maiatza argazkien hilabetea ere bada Eibarren. Maila handiko argazkilariak etorri ziren herrira **Argazkilaritza Maiatzean** egitasmoaren barruan, eta erakusketak, tailerrak eta bestelako ekintzak egin ziren.

Maiatzaren 25ean **Topaketa Feministak** egin ziren, “feministen artean saretzeko, aliantzak sortzeko, konspiratzeko, hausnartzeko, elkarrengandik ikasteko eta abar”.

Enrique Zuazua matematikariak Alexander von Humboldt ikerketa-saria jaso zuen Berlinen eta, Alexander von Humboldt Fundazioaren arabera, Zuazua da munduko lehena Matematika Aplikatueta.

Eibar FTk denboraldi ona burutu zuen 1. mailan, nahiko lasai sailkapeneko erdialdean kokatuta, eta azkeneko partiduan Bartzelonaren aurka bi goletara berdindu ondoren, **Gatibu** eta **Su Ta Gar** taldeek denboraldi amaierako jaialdia girotu zuten.

Herriko eskolek **ikasturte amaierako jaialdiak** eskaini zituzten. Gazteez gain, ikasten jarraitzen duten jubilatuek ere ikasturtea amaitu zuten. **Esperientzia Eskolak** oporrak hartzeko ateak itxi zituen eta belanaldi ezberdinak gerturatzeko ‘Hurbiltzen’ proiektua martxan jartzeko asmoa aurkeztu zuten.

Apirilean egin ziren Espainiako Gorteetarako hauteskundeen ondoren, **Udal Hauteskunde txanda** etorri zen. Herritarrek Miguel De los Toyos aukeratu zuten alkate. PSEk irabazi zituen Udal Hauteskundeak, nahiz eta zinegotzi bat galdu. PNV-EAJ-k sei zinegotzi lortu zituen, EH Bilduk bost eta Elkarrekin Podemosek bat. Aurretik, herriko politikariak Untzaga plaza erdian jarri ziren eta jubilatuen galderak erantzun zituzten, **pentsiodunek egiten dituzten mobilizazioen** harira.



Herriko politikariak jubilatuen kezak entzun eta euren galderak erantzun zituzten Untzaga erdian.

150.000 euro bideratu zituen Udalak 50 langile baino gutxiago dituzten enpresei laguntzeko.

15.101 euroko ‘per capita’ errentarekin, Espainiako herri aberatsenen zerrendan 24. postuan dago Eibar.

34.600 euro biltzea lortu zuten Abaigarko euskal udalekuearako, Euskal Herriko haur eta gazteei udan euskeraz bizitzeko aukera eskainiz.



Hilabete amaieran Udal Hauteskundeak egin zirenez eta Eibar FTK denboraldi amaierako jaialdia egin zuenez, pare bat aste aurreratu zuten Euskal Jaia.



ALEJANDRO CID
Arrateko apaiza:

“Arraten ateoak ere etortzen dira mezetara”

“‘Gure Aita’ eta ‘Arrateko Ama’ abesten dutenean tenplua metro batzuk altxatzen dela dirudi”



Ikasturtea amaitzeaz zela hainbat erakustaldi eskaini zituzten herriko eskola ezberdinek. Argazkian, Musika Eskolako ikasleak.



ANE DAVILA
WaWant proiektua:

“Umeei hezkuntza kontuekin lagundu ahal izateko, edo emakumeekin lan egiteko, eurekin berba egitea oso garrantzitsua da”

“Guatemalan andrek etxetik kanpora lan egitea oso gaizki ikusita dago”

Baimendutako Harategia
Gure Kalitatea

Giokela

MUGIKA Urkizu, 18
943120194

HARATEGIA

URTE BERRI ON!



ekaina



ISABEL NOGALES misiolaria:

“Aberastasuna ez dago
 poltsikoan, buruan baizik”

“Jendeak dena ematen eta
 galtzen duenean, gehiago
 arriskatzen du zerbait
 lortzeko”



NURIA ROBLEÑO:

“Benetako munduak nola
 funtzionatzen duen erakutsi
 nahi izan dugu ‘Made in
 made for’ dokumentalean”

“India iragana da eta Txina
 etorkizuna”

Maiatzean hasi ziren jaiei jarraipena eman zieten Urkiko jaiek eta Sanjuanek. Asteburu osoko egitaraua izan zuten **Urkiko jaiek** hilabete amaieran, eta **Sanjuanek** jai giroz bete zuten herria hilabete osoan zehar. Gero, Sanpedroek eman zioten amaiera borobila hilabeteko jaiei. Tartean, Eibar Rugby Taldeak antolatzen duen **Garagardo Feriak** eibartarren garagardo egaria asetu zuen.

Herria dantza eta salto egiteko tokia izan zen break dancea eta parkourra maite dutenentzat. Izan ere, San Juan jaien atarian **Eibarko V. Brake Dance eta All Style txapelketa** eta **parkour tailerra** egin ziren.

Foballeko denboraldia amaituta bazegoen ere, Gipuzkoako Athletizaleek **IV. Gipuzkoa Zurigorria** eguna ospatu zuten Eibarren eta kolore gorriurdinak zurigorriari utzi zion tokia herrian egun batez.

Musulmanek **Ramadana** ospatu zuten maiatza eta ekainean zehar eta Eid-fitr ospatu zuten, Ramadana amaitzeko jaia, ekintza ezberdinak eginez (janari-dastaketa, umeentzako globo-tailerra, henna-tailerra eta musika-emanaldia).

Udari ongietorria emateko, **Ipuruako kanpoko igerilekuak** zabaldu zituzten irailera arte.

Aztiker ikerguneak **‘...eta kitto!’ aldizkariari buruzko azterketa** egin zuen eta, horren arabera, orain dela 10 urte baino gehiago irakurtzen da astekaria. “15.000 irakurle ditu astero...eta kitto!-k eta oso balorazio ona jaso du”, Aztikerren berbetan.

Udalak, frankismoaren biktima batzuekin batera, **frankismoaren kontrako kereila** aurkeztu zuen Eibarko epaitegian. Bestetik, 2019-2023 agintaldirako **Udalbatza berria** eratu zuten eta Miguel de los Toyos izendatu zuten alkate.

Eibarko **Unibertsitate Laboralak (UNIK) 50 urte** bete zituen iaz eta aurten, urteurren berezia ospatzeko, ‘Eibarko Unibertsitate Laborala 1968-2018’ liburua kaleratu zuten.

Euskal Herriko ijito herriaren hainbat ordezkari **Ignacio Zuloaga** omendu zuten, “ijito herria benetan nola den islatu zuelako”.

Hilaren 28an **Askatasun eta Aniztasun Sexualaren ortzadarraren koloreak** dituen **bandera** igo zuten Untzagan.



Udalak, Eibarko Memoria taldeak eta herriko hainbat biktimak frankismoaren krimenen kontrako kereila sartu zuten Eibarko epaitegian.

255.957 euroko
 aurrekontua izan zuten
 aurtengo Sanjuanek.

41.261 euroko
 aurrekontua ezarri du Udalak
 Errebal kalea koexistentzia
 gunek bilakatzeko obraren
 proiektua idazteko.

15.000 irakurle ditu astero
 ‘...eta kitto!’ aldizkariak,
 Aztiker ikerguneak egindako
 azterketak dioenez.



Dultzaineroen etorrerak eman zien hasieran San Juan jaiei, baina hilabete osoan zehar egon zen jai-giroa herrian.



XABIER ARRIETA,
Sanjuanetako
pegatina-lehiaketako
irabazlea:

“Tontokeriak pentsatzen ditut eta beti okurritzen zait zerbait pegatinak egiteko”



UNl-ak 50 urte bete zituen eta bertan ibilitako ikasle eta irakasleak bildu ziren mende erdia ospatzeko.



JESUS M. OLMEDO
'KATA', Amañako
danborradako
zuzendaria:

“Jenderik ez bada, Amañako danborrada desagertzeko arriskuan egongo da”

“Danborrada Amañako jaiak barrutik bizitzeko aukera da”

Ibarkurutze, 5
943 20 37 15

altzariak
koltxoak
eta sukaldeak

● **tartak**
● **enkarguak**
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



uztaila / abuztua



JUAN LUIS MARDARAS, Eibar FTko presidente ohia:

“Kuaternarioan bizi ginen gaur egungoarekin alderatuz”

“Zuzendaritzan eta teknikarien artean gure sasoiko espirtua barneratuta dagoela uste dut”



IDURRE IRIONDO arkitektoa eta marrazkigilea:

“Eibarren gertatzen diren gauzei buruz eta garrantzia zeri ematen diodanari buruz pentsarazten dit Tutulumendik”

“Komikia oso komunikazio-erreminta indartsua iruditzen zait”

Amañako jaien 41. edizioa ospatu zuten auzoan eta, urtero bezala, egitarau zabala pres-tatu zuen Jose Antonio Alberdi ‘Goma’ buru den jai batzordeak: Skakeitan, Esne Beltza eta Jo-setxu Piperraken kontzertua; danborrada; Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak; mariatxia; herri-bazkaria... Aurtengoan, Oskar Artetxe Eibar FTko foballari ohi amañatarrak jaurti zuen jai-hasierako txupinazoa. Jaia San Kristobal auzora pasa zen gero eta Lambretta motorren soinu-bandarekin martxa betean ospatu zituzten egunak.

Pradoko Museoaren 200. urteurrenean, **Madrilgo museoko 50 pieza** esanguratsu jarri zituzten ikusgai Untzagan, artelanak herritarrengana hurbiltzeko asmoz. 1/1 eskalako argazkiak izan ziren, hau da, tamaina errealekoak.

Herriko **32 jubilatuk Errioxarako** autobusa hartu zuten, La Salles San Asension duen egoitzan bereziki eurentzat antolatutako udalekuetan umeek bezala edo gehiago gozatzeko asmoz.

Untzagako kioskoak atek itxi zituen. Azken 10 urteetan kioskoaz arduratu den Josefran Azpiazu jubilatua egin zen eta ez zuen lekukorik aurkitu.

Vicky Rojas eta Dalila Cabrera eibartarrek **‘Voragine’** izeneko websailaren prestaketak abiatu zituzten, etorkizun hurbilean zeresana eman dezakeen zientzia-fikziozko telesaila.

Minbiziaren Kontrako Eibarko I. Lasterketa egin zen AECC Minbiziaren Aurkako Elkartearen eskutik, eta 17.790 euro batu zituzten herritarren erantzun onari esker.

Abuztua gorabehera handi barik pasa zen. Barrena, Calbeton eta Santaines kaleetan **obrak** egin ziren, eta kanpoko **igerilekuetan** jendetza ibili zen. Bestetik, hilabeteari agur esateko, Ipuruia kiroldegia Super Amara Bera Bera eta Rocasa Gran Canaria aurrez aurre jarri zituen **eskubaloiko XX. Superkopa** hartu zuen abuztuko azken egunean.



Pradoko Museoaren 50 artelanen kopiak jarri zituzten Untzagan. Museoaren 200. urteurrenean, hango piezak herritarrengana hurbiltzea zen asmoa.

331.000 eurotan adjudikatu zuten Txontako goiko aldea Galizia pasealekuarekin lotzeko igogailuaren obrak.

%10 igo ditu aurten Udalak fatxadak zaharberritzeko edota igogailuak ipini edo aldatzeko ematen dituen dirulaguntzak.

Funeraria-Ehorztetxe
Mugica

EIBAR	ELGOIBAR
	
Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27	Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

centro médico eibar

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
943 12 02 00 – 943 12 02 04

1) Kardiologia	10) Radiologia
2) Zirurgia	11) Urologia
3) Dermatologia	12) Traumatologia
4) Dietetika / Nutrizioa	13) Koloproktologia
5) Análisi Klinikoak	14) Erizaintza
6) Ortodontzia	15) Foto-depilazio Unitatea
7) Otorrinolaringologia	16) Psikologia
8) Psikiatria	17) Neurofisiologia
9) Barne Medikuntza	

BERRIA

2020rako
GURE
DESIO
ONENAK!!!

OTAOLA, 13
943 20 08 83

GOIKO-LUZ
www.goikoluziluminacion.com

URTE BERRI HONETAN
ERE PREST IZANGO
GAITUZU EDOZEIN
TOKIRAKO
ARGIZTAPEN
EGOKIAREKIN
ASMATZEKO

Bidebarrieta, 5 **Tel. 943 201 547**

CAPI
www.capiestetica.es

BERRIA!!!
BEGI
ingurunerako
tratamendua

LIFTING
tratamendua

BETILE LUZAPENAK	LASER DEPILAZIOA 5 saioetarako BONOIA 99€ Hanka osoak + iztarteak + besapeak 95€						
LIFTING	<table border="0"> <tr> <td>Hanka osoak 60€</td> <td>Bizkarra+Lunbarra 50€</td> </tr> <tr> <td>Iztarteak+Besapeak 50€</td> <td>Ezpaina/Begitarrea 10€</td> </tr> <tr> <td>Bularra+Abdomena 50€</td> <td>Zona/saioko 30€</td> </tr> </table>	Hanka osoak 60€	Bizkarra+Lunbarra 50€	Iztarteak+Besapeak 50€	Ezpaina/Begitarrea 10€	Bularra+Abdomena 50€	Zona/saioko 30€
Hanka osoak 60€	Bizkarra+Lunbarra 50€						
Iztarteak+Besapeak 50€	Ezpaina/Begitarrea 10€						
Bularra+Abdomena 50€	Zona/saioko 30€						

ezagutzen dituzu
gure sare sozialak?

 [gaztekitto](https://www.instagram.com/gaztekitto)

etakitto
etakitto.eus

etakitto.eus

info@gerritek.net
www.gerritek.net

SOLUZIO
INFORMATIKOAK

Marka guztietako zerbitzu
teknikoa eta salmenta

Neurrira egindako
software-aren garapena

Gerritek
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6 **Tel: 943-033892**

Eibarko Kirol Sariak aurten 25 urte

SARI BEREZIAK



Lehenengo edizioko talde-argazkia (1995-XII-31)

I. EDIZIOA (1995)



Marcial del Amo

II. EDIZIOA (1996)



Manu Agirre

III. EDIZIOA (1997)



Txus Alzaga

IV. EDIZIOA (1998)



Iñaki Zuazo

V. EDIZIOA (1999)



Juan Luis Mardaras

VI. EDIZIOA (2000)



Juanito Gisasola "Txoko"

VII. EDIZIOA (2001)



Miguel Gallastegi & J.L. Akarregi

VIII. EDIZIOA (2002)



Paco Larrañaga "Pakol"

IX. EDIZIOA (2003)



Iñaki Bolinaga

X. EDIZIOA (2004)



Pedro Egiguren "Ixxua"

XI. EDIZIOA (2005)



Jose Aranberri

XII. EDIZIOA (2006)



Patxi Usobiaga



lazko edizioko talde-argazkia (2018-XII-31).

XIII. EDIZIOA (2007)



Pedro Agirregomezkorta "Petrus"

XIV. EDIZIOA (2008)



Miriam Merino

XV. EDIZIOA (2009)



Ramon Telleria

XVI. EDIZIOA (2010)



Inma Urkiola

XVII. EDIZIOA (2011)



Miguel Diego

XVIII. EDIZIOA (2012)



Jaime Barriuso

XIX. EDIZIOA (2013)



Asier Cuevas

XX. EDIZIOA (2014)



Jon Errasti

XXI. EDIZIOA (2015)



Tania Nagornaia

XXII. EDIZIOA (2016)



Markel Alberdi

XXIII. EDIZIOA (2017)



Odei Jainaga

XXIV. EDIZIOA (2018)



Davide Cerchi

Eibarko Kirol Sarien XXV. edizioa

abenduak 31, martitzena
 12:00etan, Coliseoan

SARI BEREZIA



Markel Susaeta

EUSKERA SARIA



Carmen Baroja

ARKU TIRAKETA



Mertxe Gil

ARRAUNA



Ane eta Nerea Ziaran

ATLETISMOA



Garoa Magunazelaia

AUTOMOBILISMOA



I. Narbaiza / U. Etxeberria

ERRUGBIA



Gaizka Arrizabalaga

ESKIA



Xabier Uriguen

ESKUBALOIA



Axier Gisasola

FOBALLA



Marta Lopez de Gereñu

GIMNASIA ERRITM.



Senior Taldea

GOLFA



Alberto Egiazu

HERRI KIROLAK



A. Arruti "Landarbide"

HIRU TXIRLO



Oskar Urkia

IGERIKETA



M. Barruetabeña / J. Osa
 R. Etxeberria / E. Zubiaurre

JUDO



Eider Alberdi

Abenduaren 31n, martitzenean, ...eta kitto! astekariak antolatzen duen Eibarko Kirol Sarien 25. edizioak hitzordua izango du Eibarko kirol munduarekin. Coliseoan, eguerdiko 12:00etan hasiko den ekitaldian, kirol-modalitate bakoitzean izendatutako kirolariek euren saria jasoko dute. Modalitateei dagokienez, 29 sari banatuko dira eta, horiez gain, sustapen saria, euskarakoa eta ohiko sari berezia izango dira. Guztira, beraz, 32 sari. Eibartarroi ekitaldira joateko gonbitea egiteaz gain, parte hartu duten kirol talde guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Zorionak irabazleei! Eta baita gure herriko kirol-taldeei ere, urte guztian egiten duten lanarengatik.

JUGGER



Rouse Garcia

KARATEA



Rodrigo Ibañez

MENDIA



Kalamua Korrikalari Taldea

PILOTA



Luis Alberto Narbaiza

SASKIBALOIA



Fernando Valenciano

SILBESTRISMOA



Pedro Carballo

SQUASH



Iratxe Gimenez

TENISA



Manu Sanchez

TIRO OLINPIKOA



Ander Sukia

TRIATLOIA



Adur Juaristi

TXAKURKROSA



Sonia Dominguez

TXIRRINDULARITZA



Mikel Perez de Obanos

WATERPOLOA



Miren Urizar / Senior

WU-SHU



Geaxi Moreda

XAKEA



Oier Garcia

SUSTAPENA



Hierros Servando



iraila



AINHOA BAGLIETTO **abokatua:**

“Torturak eta preso eta iheslarien eskubide urraketak salatu izana ordaintzen dugu”

“Gure atxiloketekin estatuak bakarrik zeudela sentiarazi nahi izan zien presoiei”



IKER IRAOLAGOTIA **urpekaria:**

“Gero eta arrain gutxiago dago Kantauri itsasoan”

“Kantauri itsasoa urpekaritzarako toki bezala sustatu nahi dugu”

Arrateko jaiekin eman genion ongietorria irailari eta, era berea, ikasturte berriari. Dena den, udako oporren osteko sasoia ondo hasteko, demaseko jaia ospatu zen Arrateko zelaian. Handik zazpi egunera **Baserritar Jubilatuta eta Kofradia Eguna** ospatu zen toki berean. Gero, **Arrate izenekoek** euren eguna ospatu zuten eta Aginagan **San Miguel jaia** egin zen.

Kalera jaitsita, **Legarre** auzoan ere jaiek antolatu zituzten. Gazte eta nagusientzako aste-buru osoko egitaraua prestatu zuten.

Herriko eskoletan **iaz baino ikasle gutxiagorekin** hasi zuten ikasturtea. Zehazki esanda 5.176 ikasle zeuden eskoletan izena emanda, iaz baino 65 gutxiago.

Azken 20 urteetan Jardiñeta kalean egon eta gero, **Eibarko Hizkuntza Eskola Ofiziala** Eibarko UNlra eraman zuten. **Dantzan** elkartea, bestetik, Ifar Kale utzi eta Ubitxara joan zen, Biharran elkartearen egoitzara.

11/13 sumarioko epaiketako auzipetuek fiskalaren eskaera berria onartu zuten eta, gauzak horrela, **Ainhoa Baglietto** abokatu eibartarrak kartzelan sartzea ekidin zuen.

Eibarko Musikari Gazteen Elkarteak (EMGE) ‘Karrikan’ egitasmoa antolatu zuen, Legarreko musika sorkuntzarako lokaletan egiten den musika Eibar osora zabaltzea helburu zuen ekimena.

‘...eta kitto!’ Euskara Elkarteak antolatzen duen **Berbetan** programak 18. ikasturtea hasi zuen, giro natural eta informalean euskera praktikatzeko aukera eskainiz. Euskerarekin jarraituz, iaz egin zen **Euskaraldia**ri buruzko ikerketaren emaitzak argitaratu zituzten eta, horren arabera, Euskaraldiak iraun zituen 11 egunetan “nabarmen astindu” ziren parte-hartzaileen hizkuntza ohiturak.

Pentsio duin baten alde neke barik egiten diharduten borrokan, hainbat **pentsiodunek** oinez egin zituzten Bilbo eta Madril batzen dituzten kilometroak eta bi eibartar egon ziren tarte-an, **Begoña Vesga** eta **Riki Izarra**.



Dantzan, saltoka, jolasean eta giro alaiean bizi izan ziren Arrateko Jaiek. Asteburua izanda, jende ugari ibili zen zelaian.

17.790 euro batu zituen AECC Minbiziaren Aurkako elkarteak Minbiziaren kontrako Eibarko I. Lasterketan.

%62k amaitu zuten arrakastarekin erretzeari lagatzeko terapia iaz Gipuzkoan.

75,52 metrora iritsi zen Odei Jainagak Espainiako txapelketan jaurtitako jabalina, atleta eibartarra forma onenera itzultzen ari dela erakutsiz.



Berbetan programak 18. ikasturtea hasi zuen, herritarrei giro natural eta informalean euskera praktikatzeko aukera eskainiz.



MIRIAM MARQUEZ
psikologoa:

“Erretzeari uztea dolu-prozesu bat da eta prest egon behar dugu tabakoari agur esateko”

“Borondatea izan behar da, eta momentua aurkitzea oso inportantea da”



EMGEk antolatutako 'Karrikan' egitasmoarekin musikari eibartarrek kontzertuak eskaini zituzten herriko toki ezberdinetan.



IÑAKI ALDAI:

“Bizikleta garraio moduan erabili nahi badugu, bidegorriak behar ditugu”

“Bizikletan ez dut sentitzen bizia arriskuan jartzten dudarik”

IÑAKI REZOLA
HARATEGIA

Uste Berri On!!

Errebal, 23 – Tel. 943 201 729

BOLINTXO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Eguneroko
ogia

☎ 943 20 40 66 (Errebal) ☎ 943 20 36 06 (Legarre)





urria



ELI MANZANO kooperantea:

“Ematen du errefuxiatuak ez direla inor, ez direla existitzen”

“Errefuxiatuek sentitzen dute ez dutela irtenbiderik, ez dagoela laguntzarik eta zulo batean sartuta daudela”



AMAIA URZAINKI Doinu Zahar abesbatza:

“Eibartarra izanda nik neuk banuen hemen abesteko gogoia, azkenean lagunak eta ezagun asko dauzkat”

“Gurea ez da abesbatza handia, baina zerbaitek bereizten bagaitu, abesten oso finak garelara da”

Urriko lehen zapatuan, azken 26 urteetan egin den bezala, **Sagardo Eguna** antolatzen zuten ‘...eta kitto!’ Euskara elkarteak. Aurten, gainera, Aitor Gorosabel Su Ta Gar taldeko abeslariari Euskaltzaletasunari saria eman zioten.

Urriaren 5eko matxinadaren 85. urteurrena bete zen, eta Euskal Herrian Eibarren eta Arrasaten bizi izan ziren ekitaldi larrienak. Jesus Gutierrez historialariaren berbak jaso genituen aldizkarian historia hura kontatzeko.

Eibarko emakume korrikalarien taldea osatu zuten Klub Deportiboan eta 15 lagunek eman zuten izena. Taldeko kide izateko baldintza bakarra emakumea izatea da. Bestalde, emakume eta gizonezko ugari hartu zuten parte **VII. Asier Cuevas herri-lasterketan**. Eta makina bat antxixiketaldi egin dituen **Jokin Alonso** da, Kaliforniako Tahoen lakuan (AEB) Spartan Race oztopo-lasterketako munduko txapelketan urrezko domina lortu zuen eibartarra.

Herriko kirolak pasarte iluna bizi izan zuen bestetik, **Juan Luis Mardaras** Eibar FTko presidente ohiak utzi zigulako urrian.

Untzagan **Liburu eta Disko Azoka** egon zen bi astez, eta euskal literaturaren azken nobedadeak eskuratzeko aukera izan zuten bertara hurbildu zirenek. Eta kulturarekin jarraituz, **Jose Agustin Gurrutxaga** eibartarrak lortu zuen XXXII. Indalecio Ojanguren argazki-lehiaketako sari nagusia.

Gerora zeresana emango zuen **Bittor Sarasketa** kaleko 1. zenbakiko **eraikina** eraisteko lanak hasi zituzten. Eta eraikin batzuk bota eta beste batzuk altxatu, urrian **Errebal Eraikiz** izeneko saioa egin zen udaletxeko pleno aretoan, bertan sortuko den gunea nolakoa izango den zehazten joateko.

‘...eta kitto!’ Euskara Elkarteak munduan zehar ibili zen. Lehenik, Edinburghen (Eskozian) egin zen ‘Crowded out or limitless horizons? Minority language media in the digital age’ kongresuan hartu zuen parte eta, gero, La Seu d’Urgellen (Herrialde Katalanetan) egindako CIMP kongresuan.

Aurten ere Kataluniara begira izan gara eta hango erreferendumaren auziagatik hainbat buruzagiri zigorrak ezarri ondoren, **eibartarrak kalera** irten ziren protesta egitera.



Urtero gora doan jende multzoa batu zen Sagardo Egunean. Sagardoa, pintxoak, sagar-tarta, musika... giro ederrean bizi izan zen eguna.

1934ko urrian atxilotutako **238** eibartarren zerrenda eskuragarri ipini zuten Udal Artxiboan.

40 irudi ezberdinekin apaindu zituzten Debabarreneko ondarearen berri ematen duten azukretxoak.

105 egunez greban egon ondoren, Mendaroko ospitaleko mantentze-lanez arduratzen den Tecman SVA SL enpresako langileek eskatutakoa lortu zuten.



Jokin Alonsok Spartan Race oztopo lasterketako munduko txapelketa irabazi zuen Kalifornian dagoen Tahoe lakuan.



AINHOA ALDAZABAL
euskal filologoa:

“Liburu bati beti eman behar zaio aukera bat, inoiz ez dakizulako barruan zer aurkituko duzun”

“Emakumeen testuak oso ezkutuan egon dira”



Jose Agustin Gurrutxaga eibartarrak irabazi zuen Indalecio Ojanguren lehiaketaren sari nagusia.



Eibartarrak antxitxiketan jarri zituen Asier Cuevas herri-lasterketak.



RIKI IZARRA
pentsioduna:

“Herri batzuetan heroi moduan tratatu gaituzte”

“Pentsioen kontuak ez dizu zuzenean eragin behar borroka giteko”

JOSE VICENTE PEROSANZ
M^a LUISA SOROA
MARTA VALERA
IRATXE URIBEZUBIA

TEL. 943 204 194
FAXA . 943 820 006

Urtzaile, 1 EIBAR egurenyasociados@gmail.com



azaroa



OIHANA ARISTONDO Eibarko Ingeniaritza Eskolako koordinatzailea:

“Paperean geratzen dena bizitza errealean erabilgarria izatea gustatuko litzaidake”

“Erregai fosilak desagertzen doaz eta energia berriztagarriei begira jarri beharko ginateke”



MARIA ROMERO LASPIUR, artista eta moda diseinatzailea

“Gure proiektuan artea, diseinua eta teknologia berriak elkartzen dira”

“Egiten ditugun bitxiak nire margoetan inspiratutako formak dira. Landare imaginario batean oinarritutako lanak dira”

Azaroarekin Amelie borrasca etorri zen gurera eta **Arrateko pago** batzuk bota zituen. Jatorri eta kultura ezberdineko eibartarrek bazkariak egin zituzten elkar ezagutzeko **Bizilagunak** egitasmoaren barruan. Hilaren 11n, bestetik, jatorria Eibartik kanpo dutenek **Gaztainerre** ezagutzeko aukera izan zuten, AEK euskaltegiak antolatutako afarian batu zen jendetzarekin gozatuz.

Nagusilanek Gure Balioak 2019 Sari Nagusia jaso zuen Debegearen eskutik. Eskualde guztian zaharrei musutruk eskaintzen dien laguntasuna eskertu nahi izan diete horrela.

Guardia Zibilak pertsonen trafikatzeko zuten **hiru lagun atxilotu** zituen San Kristobal auzoan. Bestetik, **Rakel Lopez Airas** eta bere seme Markel hiltzeagatik akusatuta zegoen Mounir Ayad atxilotuta zegoen, eta orain, Madrilen epaiketa egin ondoren, bizi arteko espetxealdia ezarri diote.

Azaroaren 10ean Espainiako Gorteetarako hauteskundeak egin ziren, urteko bigarrenak, eta **EAJ-PNVk** lortu zituen boto gehien Eibarren.

Asier Errasti Film Laburren Jaialdiaren 20. edizioak 171 film labur jaso zituen. Coliseoan egin zen jaialdiaren amaierako jaia, eta toki berean jokatu zen **Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa**ko hirugarren final-laurdena. Jon Maia nagusitu zen.

Arragueta kaleko 15. zenbakiko **eraikina jausi** egin zen eta, egoera horretan, bota egingo zuela erabaki zuen Udalak. Bere aldameneko etxe biak (11. eta 13. zenbakiak) eraisteko lanak hasita zeuden, baina ez zegoen 15. zenbakia eraisteko asmorik. Bitartean, 17. zenbakian bizi zirenak Eibar eta Ermuko hoteletara eraman zituzten, eta handik aste batzuetara ezin izango zirela etxera bueltatu esan zieten.

Sosola baserriak **‘Udazkeneko uzta’** izeneko egitasmoa jaso zuen eta, baserrian bisita gidatua egiteaz gain, Ruper Ordorikak kontzertua eskaini zuen.

Gastronomiak demaseko garrantzia izan zuen hilabetearen zehar. Berakatz Zopa Txapelketa, Bakailao Pintxo Lehiaketa, Eskolarteko Bakailao Lehiaketa, Pintxo Lehiaketa, Txistorraren Eguna eta Bakailao Lehiaketa egin ziren, hilabeteari amaiera ezin hobea eman zioten San Andres jaien zizka-mizkak.



Arragueta kaleko 15. zenbakiko eraikina jausi egin zen eta bota egin zuten gero. Gainera, 17. zenbakiko bizilagunak etxetik atera zituzten eraikinaren egoera kaskarragatik.

221.468 euskal herritarrek jarri dute gripearen kontrako txertoa

30.000 euroko udal inbertsioa egin zuten lan barik dauden 30 eibartarri formazioa eskaintzeko.



Elkarrekin bazkaltzeko geratu ziren jatorri ezberdineko eibartarrak Bizilagunak egitasmoaren barruan.



MIKEL URKOLA
musikaria:

“Musikak ilusioa eta poza ematen dizkit, suspertu egiten nau”

“Beste pertsona baten azalean jartzen naiz abestiak sortzeko orduan”



Amelie boraskak ekarri zituen haize boladek Arrateko pago batzuk bota zituen. Segurtasun kontuengatik moztu egin zituzten gero.



AINARA LAVADO
‘...eta kitto!’ Euskara Elkarteko normalizazio arduraduna:

“Hedabide jeneralistentzat erronkak handiak badira, are gehiago txikientzat”

“Hedabideak ezinbestekoak dira hizkuntzen biziraupenerako”

TXOKO
TXOKO
Giro alaiak Gabon Zaharrean!
UNTZAGA PLAZA, 10
20600 EIBAR

Iker Elorza Beitia
Telf.: 608 30 85 26
e-mail: legalbide@gmail.com

LEGALBIDE
Finka kudeaketa • Aholkularitza juridikoa • Abokatua



abendua



IKER EIZAGIRRE Eibarko elkarte gastronomikoei buruzko ikerketa:

“Elkarte gastronomikoei
Eibarko enpresen arteko
harremanak indartu
zituztela uste dugu”

“Goi Argi elkartearen kasua
asko interesatzen zaigu”



JOSU MARTINEZ Juan San Martin bekaren irabazlea:

“Euskarazko zinemaren
historiaren hasieran gaude”

“Euskal zinema azpigaratua,
idealismotik eta altruismotik
sortua, eta ezezaguna
izan da”

Euskeraren Eguna ospatu zen hilaren 3an eta herriko gazteek hainbat aldiz dantza egin ondoren, herritarrek euskeraren sarea irudikatu zuten koloretako hariekin. Hurrengo egunean, 4an, Debarreneneko **Euskararen Ginkanaren** finala jokatu zen Coliseoan eta Soralueze Institutuko ikasleek irabazi zuten.

Gipuzkoako Eraikin eta Lokaletako Garbikuntzak greba hasi zuen hilaren 17an, soldata-arrakalarekin amaitzea aldarrikatuz. Bestetik, **pentiodunek** borrokan jarraitu dute orain arte eta Eibarko talde bat Gasteizen egon zen han egin zen elkarretaratzean pentsio duinen alde egiten.

Hilabete batzuk lehenago bere jantziak Toribio Etxebarria kaleko denda batean salgai jarri eta gero, **Ion Fiz** diseinatzaile eibartarrak ‘Eskema’ izenburuko erakusketa zabaldu zuen Armagintza Museoan. 2002an bere firma sortu zuen momentutik gaur egunera arteko diseinuen zirriborro eta oharrak aurkitu daitezke bertan.

Lorelei taldea bueltan da 20 urteren ondoren eta 2020ko otsailaren 7an Coliseoan konzertua eskainiko duela iragarri du.

Eibarko I. Txakurkrosa oso arrakastatsua izan zen, 155 lagunengatik parte-hartzearekin. Gainera, Andoni Mayo eibartarra podiumera igo zen Dexter txakurraekin.

Eraisten ari ziren **Bittor Sarasketa kaleko 1. zenbakiko horma** bat-batean jausi egin zen. Zorionez, ez zuen inor harrapatu.

Urriaz geroztik anbulatorioiko **larrialdi-zerbitzuaren ordutegia** aldatu eta murriztu dela-eta, herritar askok azalpenak eskatu dizkie erakundeei. Izan ere, asteleheneetik barixakura 17:00etatik aurrera, eta asteburuetan 21:00etatik aurrera, eibartarrak ezin dute Etengabeko Arreta Zerbitzua (EAG) anbulatorioan erabili.

Gabonen atarian hainbat **zozketa** egiten dituzte herriko eragileek, baita ‘...eta kitto!’ Euskara Elkarteak ere. Aurten zozketatu duen otarra Arantzazu Etxanizek irabazi du.

Gabonak hilabete amaieran ospatzen badira ere, hilabete osoko egitaraua antolatu du Eibar **Merkataritza Gune Irekiak**: izotz-pista, txiki-parka, barrakak, Olentzeroren kalejira, tailetrak... mila gauza Erregeak etorri arte.



Bittor Sarasketako 1. zenbakiko eraikinaren horma bapatean jausi zen. Zorionez ez zuen inor harrapatu.

1.201 kontsulta jaso zituen
Kontsumitzaileen Informaziorako Udala
Bulegoak (KIUB) 2019ko lehen sei hilabeteetan.

5 eta 10 milimetro arteko zebra-
muskuluek Aixolako urtegiko hondoa
kolonizatu zutela konturatu zen URA Uraren
Euskal Agentzia.



Egunean zehar dantza egin ondoren, koloretako hariekin euskeraren sarea irudikatuz amaitu zuten Euskeraren Eguna.



ALEJANDRO SANTOS
Gurs experience:

“Tragediaren atsekabea
arnastu daiteke Gursen”

“Gursek gure memorian
eragiten du, muga igaro
zuten euskaldun gehien
batu zituen esparrua
delako”



Eibarko I. Txakurkrosa egin zen herriko mendietan eta parte-hartze handia izan zuen.



A TUTI PLAIN TALDEA:

“Ez badugu ondo pasatzen,
ez goaz inora”

“Zure abesti bat grabatuta
entzutea demasa da, beteta
sentitzen zara”

GAUR
ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA
KONPONKETA
ELEKTRIKOAK

ATEZAIN
AUTOMATIKOAK ETA
BIDEO-ATEZAINAK


Zuloagatarren 9, behea
Telefonoa 943 20 62 40

carmen@egaur.com
Faxa 943 05 69 23

Izadi
LORADENDA

San Juan, 1
943 20 33 29

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak
- Enkarguak etxera



Mikel Azkargorta
(pilotaria):
 "Binaka jokatzeari nahiago dut. Bakarka presio handiagoa sentitzen dut eta binakakoan, aldez, presioa banatu egiten da".



Eneko Rivero
(e-sports jokalaria):
 "Eibar KE-koak e-sportseko kidea izan nahi nuen galdezka etorri zitzaizkidan eta demaseko ezustekoa izan zen".



Sohaib Adiba
(boxeolaria):
 "Nire erreferenteak Mohamed Ali, Mike Tyson, Manny Pacquiao eta Kerman Lejarraga dira".



Ruben Fuentes
(eskubaloizaina):
 "Atezainak ziurtasuna emateak garrantzi handia du, batez ere taldekideei begira".



Julen Arizaga
(ingeniarri industrial):
 "Jakinminak gidatu nau ikasketetan eta espero dut beti horrela izatea".



Markel Goimendio-urrutia
(arotza):
 "Ikasitakoa praktikan jarri nuen Madrilan jokatuako Spain Skills 2019 lehiaketan. Bontzeko dominarekin bueltatu nintzen etxera".



Alba Ortea
(Miss Grand Eibar):
 "Zu zeu izatea da garrantzitsuen miss lehiaketetan".



Miren Urizar
(Urbat waterpolo taldeko jokalaria):
 "Waterpoloak fisikoki eta mentalki asko eskatzen duen kirola da, baina izugarria da gure artean daukagun giroa".




Olatz Mandiola
(Industria Diseinuko Graduoko ikaslea):
 "Zizeilua, Euskal Herriko baserrietako objektu tradizionala gaurkotu dugu, egungo bizimodu eta beharretara egokituz".



Oihane Perez Calle
(boluntarioa Marokon):
 "Marokora boluntario moduan joatea orain arte egin dudana gauzarik onena edo onenetakoa izan da".



Thiago Almeida
(dantzaria):
 "Gizartearen eta gizakien hipokresia islatzen saiatzen gara dantzaren bitartez".



Malen Illarramendi
(GazteON-eko koordinatzailea):
 "Podcasten aldeko apostua egin dugu. Eztabaida edo mahai-ingurua audioan grabatzen dugu".



Eneko Lambea (gimnasta):
"Bakarkakoan Euskadin nesken aurka lehiatzeko aukera dut; eta Espainia mailan, nahiz eta nesken aurka ezin naizen lehiatu, gimnasia egiten duen mutil gehiago dago eta euren aurka aritzen naiz".



Jon Osa (igerilaria):
"AEBan kirola eta ikasketak uztartzeko aukera onak daude. Horregatik etorri naiz Missouriiko Unibertsitatera".



Miren Martinez (kooperantea):
"Nik zerbait eskaini baino, ikasketa bat izan da niretzat"




Julen Leturiondo (musikaria):
"Hainbat proiektutan ibili ondoren, bide propioa hasiko dut orain"



Jaixak Herrixak Herrixandako
"Bazkariko 700 lagunekin alderatuz, lagun gutxi gabiltza prestaketan"



Eibar BHI-ko ikasleek "Beldurra" antzezlana
eskaini zuten Debabarreneko Eskolarteko Antzerki erakusketan. Zuzendari lanetan Andrea Covadongak jardun zuen.



Andrea Garcia abeslari eibartarra
primeran aritu zen EITBko Bago!az saioan.



Marcos Sotes, Sonia Barajas, Garazi Irisarri eta Maria Beraza (sukaldaritzako ikasleak):
"Ikasapresa azokan beste ikasleek aurkezten zituzten proiektuak ikusteko aukera izan genuen, eta hori oso ondo dago"



Institutuko ikasle taldea:
"Ikastetxean arazoak edo kexak baldin badaude taldean jarduteak pisu handiagoa dauka. Bestalde, arlo sozialean, politikoan, ingurugiroan... jarduteko asmoa daukagu".



Eibar eta Ermuko Ernaik antolatuta, Debabarreneko Alternatiben Azoka egin zen. Argazkian Irati Gabirondo eta Aitor Aizpuru.

eibartHARTUak



ABBIE WHITE
(IPAR IRLANDA)

"Irlandan familia bakarreko etxebizitzetan bizi gara eta etxean egiten dugu bizitza, neguan batik bat"



ROSE NANLEH LAWREHK
(GHANA)

"Maitasunak ekarri ninduen hona. Ghanan ondo bizi nintzen, ez naiz ezer bila etorri"



KOLYO DIKOV KOLEV
(BULGARIA)

"Berehala gustatu zitzaidan Eibar, nire jaioterriaren antza duelako"



VANIA FARIK (BRASIL)

"Eibarrera iritsi nintzenean kale bi bakarrik zituela ematen zuen, nahiko txikia zela, baina oso eroso da eta jendeak oso ondo hartu ninduen"



MOHAMMAD WARIS
(PAKISTAN)

"Laster utzi behar izan nuen eskola. Pobreak ginen eta aitari lanean lagundu behar nion"



ALEXANDRA OLIVEIRA
(BRASIL)

"Nire alabei ezin nien eman Euskal Herrian zuten bizitza, eta Euskal Herrira itzultzea erabaki genuen"



ROSARIO CAMPOS (MEXIKO)

"Familia eta lagunei saltzen hasi nintzen kafea, eta gero eta gehiago murgildu naiz kafearen munduan. Hemen kafe asko kontsumitzen da"



JOHAN MARBEL (VENEZUELA)

"Bisitan joan naiz behin, baina gauzak asko aldatu beharko lirateke Venezuelan bizitzera bueltatzeko"



MAURO AMOR (ARGENTINA)

"Argentinan gaizki ikusten da taldez aldatzea (errugbia). Lagunek esaten zidaten taldez aldatuz gero ez zidatela berbarik egingo"



NEAMA FAWZY ELSAYED
ABDELNABY (EGIPTO)

"Euskera izugarri gustatzen zait eta batzuek zaila dela esaten badute ere, niri ez zait zaila iruditzen"



YADIRA MOLINA (KOLONBIA)

"Gabonetan narkoek opariak banatzen zituzten kalean eta guk poz-pezik hartzen genituen. Agian gurasoei ez zien hainbeste graziarik egiten"



RICHARD MCELROY (ESKOZIA)

"Ipar Irlandan jaio nintzen baina Eskozian hazi naiz batez ere. Aitak esnearen industrian egiten zuen lan eta bere lanaren ondorioz toki batetik bestera ibili ginen"



ANA FALUICA (ERRUMANIA)

"Gaztelera edo euskera ikasteko aukera eduki nuen eta aukera errazena hartu nuen, gaztelera, baina euskera ikasi behar dut, euskera jakiteak aukera gehiago eskaintzen dizkizulako"



AHSEN LALAMUSA
(PAKISTAN)

"Lokutorio bat jarri nuen lehenik, gero janaridenda bat, ondoren fruta-denda bat, Ermuan telefono-denda bat eta, orain, jatetxe bat Arraguetan"

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak
antena

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

ELEKTRIZITATEA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

THELECER

TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922

KRISTALAK

ARKITEKTOAK

olatz etxeberria martinez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberria

arkitektura, hirigintza eta peritazioak
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak



Mekola, 7 - behea
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E.

INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS

← →

ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA

E.I.T.

info@ajtoficina.com tlf. 943 20 12 30
AJT Zihurtasuna S.L.p.
Barrena, 6 - behea ezk.

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARIKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com ERAKUSKETA
eta faxa: 943 203 903 Arikixaneko Zubian

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toloak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-
605 713 168 943 744 019

PINTURAK

baglietto

PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Arragueta, 18-2.D

www.kolorlan.com 667 54 89 16


KOLORLAN



PINTURA LANAK S.L.


**Eskerrik asko 2019an
"Eibar Klisk batean"
atala egiten lagundu
diguzuen argazkilar
guztiei**



KLISK BATEAN







Urtarriletik ekainera egindako erreportaje guztiak **Youtube**n dituzue ikusgai, gazteOn!-en kanalean.
 (erabili QR kodea zuzenean bertan sartzeko)

Genero indarkeria



Inteligentzia artifizia



Jokoa ez da errenta




Ikasle bizimodua



Podcast edo audioak **Spotify**n entzuteko



Podcast edo audioak **iVoox**en entzuteko



Gabon Zahar Feria bihar **ELGOIBARREN**

Gabon Zaharretako nekazaritza eta abeltzaintza feria ospatuko dute bihar Elgoibarren, 08:30etik 14:00etara. Guztira 127 saltoki jarriko dira bertako produktuak erakutsi eta saltzeko. Feria eguna girotzeko, Baltzola eta Lagunak trikitilariak izango dira; Elgoibarko Kale Kantariak taldeak, bestalde, euskal abesti herrikoiak eskainiko ditu, eta Kalegoen Plazan, I. Bereziartua Musika eta Dantza Eskolak antolatutako erromeria izango da. Bolatokiko parkera, Lekueder eta Kalebarren plazara hurbiltzen direnak, hainbat abereren erakusketaz, produktuen salmentaz eta labeldun saiheski pintxoetz gozatu ahal izango dute. ArTaldek artisauen erakustaldia eta produktuen salmenta egingo du Maalako parkean, 10:00etatik 14:30era. Halaber, 11:00etatik 14:30era falkoneria erakustaldia egingo da Kalebarren plazan. Eta 21:00ak aldera, berriz, idi gazteen proba, Sigmako probalekuan, Sigma Probaleku Herri Kiroi Elkartearen eskutik.

Urteberriko feria **DEBAN**

Debako urteko lehen nekazaritza eta abeltzaintza azoka ospatuko da urtarrilaren 4an. Goiz-goizetik, bertara gerturazten direnek euskal produktuak dastatu eta erosi ahal izango dituzte. Urtero bezala, herriko plaza baserriko produktuz beteko da. Gainera, ganadu erakusketa egongo da kioskoan eta ez dira faltako frutu, barazki era gazta lehiaketak.

hildakoak

- Margarita Maiora Larrañaga. 101 urte. 2019-XII-20.
- Eustaquia Kalzakorta Alegria. 87 urte. 2019-XII-20.
- Jose Antonio Besga Argomaniz. 83 urte. 2019-XII-20.
- Mikel Fernandez Hernandez. 34 urte. 2019-XII-21.
- Felisa Egiazu Benito. 79 urte. 2019-XII-21.
- Alejandro Ramirez Aldanero. 92 urte. 2019-XII-21.
- Isabel Akarregi Barata. 91 urte. 2019-XII-21.
- Aurita Fernandez Vila. 94 urte. 2019-XII-22.
- Ignacio Ugartetxea Aulestiarte. 90 urte. 2019-XII-23.
- Angeles Alfaro Farias. 91 urte. 2019-XII-23.
- Bittori Berasaluze Oarbeaskoa. 76 urte. 2019-XII-24.
- Arrate Arizaga Uribe-etxeberria. 81 urte. 2019-XII-24.
- Maria Zorrozuola Olarra. 78 urte. 2019-XII-25.
- Ana M^a Zamakola Hernando. 83 urte. 2019-XII-25.

jaiotakoak

- Ane Iturbe Angiano. 2019-XII-13.
- Martina Riesgo Martinez. 2019-XII-15.
- Bruno Txurruka Marin. 2019-XII-20.
- Vega Elkoroiribe Lopez. 2019-XII-21.
- Izei Manzisidor Carmona. 2019-XII-22.

SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

2	9	8	7	5	3	1	6	4
6	7	3	4	9	1	2	8	5
1	5	4	6	8	2	3	9	7
7	4	5	2	1	6	9	3	8
8	1	6	9	3	7	4	5	2
3	2	9	8	4	5	6	7	1
5	6	7	1	2	9	8	4	3
9	8	2	3	7	4	5	1	6
4	3	1	5	6	8	7	2	9

2			5			4		
9	3				8			5
4							1	
					9		7	
		3	7		1	8		
	9		6					
	8							3
7			3				5	1
	2				6			9

farmaziak

- Barixakua 27
 EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 28
 EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
- Domeka 29
 EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)
- Astelehena 30
 EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- Martitzena 31
 EGUNEZ **Azkué** (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 1
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- Eguena 2
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Barixakua 3
 EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Zapatua 4
 EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Domeka 5
 EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- Astelehena 6
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Martitzena 7
 EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 8
 EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
- Eguena 9
 EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)
- Barixakua 10
 EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

GAUEZ BETI:

- Zulueta** (S. Agustin, 5) 2019an
- Barandela** (Z. Agirre, 4) 2020an

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Andretxea.....943 70 08 28
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

Barixakua 27

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelenan, 2-12 urteko haurrentzat. 3 euro (doan EMGI-ko bonoarekin). Astelena frontoian.

EIBART AZOKA

11:00/14:00 eta 17:00/20:30. Gabonetako 15. Artisau Azoka. Untzagan.

KONTZERTUA

22:00. Asfalto taldearen kontzertua. 23 euro (16 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Zapatua 28

KONTZERTUA

11:00. Julenen kontzertu akustikoa. Magala kafetegi degustazioan.

SOLASALDIA

11:00. "Alukeriak, sinismen eta bizipenetan barna". Naluaren eskutik. Ainhoa Aldazabal eta Aniaiz Ariznabarretaren kolaborazioarekin. Portalean (ikastaro-gela).

BOLA ERRALDOIA

11:00/14:00 eta 16:00/20:00. EMGI-ren bola erraldoi ibiltaria. Untzagan.

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelenan, 2-12 urteko haurrentzat. 3 euro (doan EMGI-ko bonoarekin). Astelena frontoian.

EIBART AZOKA

11:00/14:00 eta 17:00/20:30. Gabonetako 15. Artisau Azoka. Untzagan.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia HH-ko umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegian.

Domeka 29

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelenan, 2-12 urteko haurrentzat. 3 euro (doan EMGI-ko bonoarekin). Astelena frontoian.

EIBART AZOKA

11:00/14:00 eta 17:00/20:30. Gabonetako 15. Artisau Azoka. Untzagan.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia HH-ko umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegian.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45. Patinatzeko pista. Ipurua kiroldegian.

KONTZERTUA

19:00. Ni Neu. (EMGE Domeka Kulturalak). Doan. Portalean.

Astelehena 30

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelenan, 2-12 urteko haurrentzat. 3 euro (doan EMGI-ko bonoarekin). Astelena frontoian.

EIBART AZOKA

11:00/14:00 eta 17:00/20:30. Gabonetako 15. Artisau Azoka. Untzagan.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatu eta Pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

Martitzena 31

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelenan, 2-12 urteko haurrentzat. 3 euro (doan EMGI-ko bonoarekin). Astelena frontoian.

EIBART AZOKA

11:00/14:00 eta 17:00/20:30. Gabonetako 15. Artisau Azoka. Untzagan.

UMEENDAKO KANPAIAK

11:30. Mahatsak eta kotiloi-poltsak banatzea.
12:00. Urte berriko kanpaiak eta umeendako diskoteka. El Corte Inglesean.

EIBARKO KIROL SARIAK

12:00. XXV. Eibarko Kirol Saria. Coliseoan.

LASTERKETA

16:30. XXIX. San Silbestre Lasterketa. Antolatzaileak: Eibarko korrikalariak. Aixolan.

MANIFESTAZIOA

19:00. Presoen eskubideen aldeko manifestazioa eta brindisa. Urte berriaren ongietorriarekin jarraitzeko, aterra Gaztetxean.

Eguaztena 1

URKORA IGOERA

09:00. Urte berriari ongietorria emateko Urkora igotzea. Klub Deportibo paretik abiatuko dira.

Eguena 2

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelenan, 2-12 urteko haurrentzat. 3 euro (doan EMGI-ko bonoarekin). Astelena frontoian.

EIBART AZOKA

11:00/14:00 eta 17:00/20:30. Gabonetako 15. Artisau Azoka. Untzagan.

ANTZERKIA

17:00. "Kaskarot" (Atx Teatro) umeendako antzerkia. 5 euro. Coliseoan.

Barixakua 3

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelenan, 2-12 urteko haurrentzat. 3 euro (doan EMGI-ko bonoarekin). Astelena frontoian.

EIBART AZOKA

11:00/14:00 eta 17:00/20:30. Gabonetako 15. Artisau Azoka. Untzagan.

Zapatua 4

BOLA ERRALDOIA

11:00/14:00 eta 16:00/20:00. EMGI-ren bola erraldoi ibiltaria. Ego Gainen.

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelenan, 2-12 urteko haurrentzat. 3 euro (doan EMGI-ko bonoarekin). Astelena frontoian.

EIBART AZOKA

11:00/14:00 eta 17:00/20:30. Gabonetako 15. Artisau Azoka. Untzagan.

Domeka 5

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelenan, 2-12 urteko haurrentzat. 3 euro (doan EMGI-ko bonoarekin). Astelena frontoian.

EIBART AZOKA

11:00/14:00 eta 17:00/20:30. Gabonetako 15. Artisau Azoka. Untzagan.

HIRU ERREGEAK

17:00. Ipurua dantza garaikide taldearen, Eibarko Balletaren eta Ipurua Gimnasia Erritmika taldearen dantza ikuskizuna. Ipurua kiroldegian.
19:00. Erregeen kabalgata, Eibarko Musika Bandak lagunduta. Untzagatik hasita, Urkizuraino eta buelta. Amaieran, umeei harrera egingo diete, udaletzeko patioan.

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, BITTOR!!!, bixar 4 urte beteko dozuz-eta. Oso ondo ospatu inguruekin eta patxo haundi bat famelixaren partez!!




JARE gure txiki politak 4 urte beteko dittu bixar. Zorionak eta patxo potolua famelixa guztia partez. Maite zaittugu!!



Zorionak, MALEN, hillaen 30ian 8 urte egingo dozuzelako. Musu haundi bat zure ahizta Aiora eta etxeke guztien partez.



Zorionak, YASSMIN (25ian 10 urte) eta NISRIN (30ian 13 urte) Doudouh, zeuen urtebetetzian. Musu haundi bana famelixa osuaren partez.



EUSTAQUIA CALZACORTA ALEGRIA

(2019ko abenduaren 20an hil zen, 87 urterekin)

“GUREKIN egon zara orain arte eta horrela izaten jarraituko du”

ETXEKOAK



MIKEL FERNANDEZ HERNANDEZ

(2019-XII-21)

“BETI ERUANGO DOGU zure irribarria gure bihotzetan”

ZURE LAGUNAK



DIONISIO VELAR SAGARNA

I. urteurrena: 2018-XII-30

“Zure irribarre eta samurtasuna BETIRAKO izango dira GURE ARTEAN”

ETXEKOAK



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai R. Galdos kalean. 3 logela eta 2 komun. 90 m². Terraza eta dena kanpora begira. Oso egoera onean. Sartzeko moduan. Tel. 671-258740.

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Eibar erdialdean. 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Berehala sartzeko moduan. Tel. 688-667994.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 627-892991 eta 674-377765.

- Emakumea eskaintzen da 11:00etatik 17:00etara lan egiteko (zaintza, garbiket...). Tel. 603-874953.

- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 632-761979.

- Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile moduan, garbiketarako egiteko eta gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 629-889465.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita ospitalean ere). Jaurlaritzako ziurtagiriek. Tel. 631-067165.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 628-529252.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gaez ere) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 641-426543.

- Mutila eskaintzen da eraikuntza eta margotze lanetarako. Tel. 642-505630.

- Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile moduan, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 627-892991.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-422256.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-389567.

- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 612-221327.

4.2. Langile bila

- Aho-haginetako higienista behar da. Jardunaldi osorako eta berehala hasteko. Bidali curriculum: hortzclinika.06@gmail.com

- Furgoneta duen autonomia behar da buzoietan banaketa-lanak egiteko astean behin. Bidali eskaintza: marisol.etakitto@gmail.com

- Basondartzako Eskolarako 2019-20 ikasturterako bidelagun bila gabilta. Bidali curriculum: basondartzaz@gmail.com

- Elgoibarko enpresak txofer eta biltegi lanetarako pertsona behar du. Bidali curriculum: gmirenb@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Ekonomia irakaslea behar dut, Zuzenbideko 1. Mailarako. Tel. 685-752000.

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo, Heziketa zikloak eta Unibertsitate mailako klase partikularrak ematen dira. 3 lagunekoko taldeak. Tel. 678-937827. Patricia.

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Autoaren atzekaldeko bolan lotzen den bizikleta-eramateko salgai. Lekua lau bizikletarentzako. 175 euro. Tel. 646-293311.

- Binilo diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 688-624326.

- Play Station 4 salgai, bi mandorekin. Oso gutxi erabilia. 200 euro. Tel. 696-817026.

- 80 zentimetroko ohe-kabia salgai, koltxoi eta guzti. 100 euro. Tel. 695-708100.

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

ORBEA HAURRESKOLA



Bittor Sarasketa, 11

943 20 03 84

orbea.eibar@haurreskolak.eus

Haurreskolak

URTE BERRI ON!!



publiresa@publiresa.com

Armagin, 3-5 beheak



merchandising



serigrafia



lanerako erropa

publiresa@publiresa.com

943 701 497 / 687 879 667

Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure
laborategian diseinatzen dugu.

Urte Berri On!

 **bista eder**
clinica dental - horts klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar
www.bistaeder.es